

PROZEDURA IREKIAREN BITARTEZ SAN MARKOKO ZABORTEGIAREN IIa AZPIFASEARI DAGOZKION OBRAK KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN ORRIA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea “Donostialdean (Gipuzkoa) San Markoko zabortejiaren II. fasea itxi eta berreskuratzeko proiektuaren” barruan, IIa azpifaseari dagozkion obrak kontratatzea izango da, proiektuan definitzen den moduan eta “Ingurumen Sailburuordetzaren 2012ko uztailaren 31ko Ebazpenak, SAN MARKOKO MANKOMUNITATEAK sustatu ondoren, Astigarraga, Donostia eta Erreneriako (Gipuzkoa) udalerrietan hondakin ez-arriskutsuetarako zaborteji zigitatu, mantendu eta ixte ondorengo kontrolatzeko ingurumen-baimen integratua (IBI) ematen duenak” aipatutako ekarpenak kontuan hartuta. Horiek kontratuaren barruan sartuko dira ere bai.

Obran HH eta asimilagarrietarako San Markoko zabortejiaren egingo dira. Donostiako, Erreneriako eta Astigarragako udalerrien arteko ibarrean dago. Bertara Erreneriako Beraun auzotik iristen da, San Marko errepidearen bitartez.

2. KONTRATISTAREN BETEBEHAR NAGUSIAK

1. Obrak onartutako proiektu, ebazpen, orri, araudi aplikagarri orokor eta, nolana ere, kontratatutako lanen izaerari dagozkion berezko arau teknikoak zorrozki jarraiki egin beharko dira, kontratistaren zori eta arriskura. Ildo horri eutsiz, kalte-ordainik jasotzeko ez du eskubiderik izango, ezinbesteko kasuetan izan ezik.

2. Kontratista esleipenduna obrak behar bezala amaitu arte proiektuan aurrez ikusitako konponbideak zuzen garatu eta gauzatzeko arduradun izango da.

3. Obrak garatzen diren bitartean eta berme-epaia amaitu arte, kontratista eraikuntzan aurki daitezkeen akatsen arduraduna izango da.

Administrazioak izendatutako zuzendari eskudunaren iritziz obraren zati bat gaizki eginga badago, kontratistak berriz egin beharko du inolako kalte-ordainerako eskubiderik izan gabe, nahiz eta hartu ondoren hauteman.

4. Gutxi gorabehera ondoren kontratistak bere kontura izan behar duen zenbait alderdi aipatzen da:

- Topografia osagarria eta zuinetakoa.
- Proiektuaren konponbide teknikoak lursailaren egiazko baldintzetara moldatzea.
- Hala badagokio, ezpondak eta zimenduak moldatu eta doitzea.
- Sestak egokitzea.
- Obrak gauzatzeko beharrezkoak edo komenigarriak diren behin-behineko sarbideak eta pasabideak edo saihebidetako seinaleztapen eta gailu egokiekin, semaforoak barne.
- Obraren kontratu-baldintzen arabera eta indarreko legeriaren testuinguruan, Administrazioaren ekimenez kontratista esleipendunari ematen zaizkion obra osagarriak, besteak beste, sarbideak lehengoratu edo moldatzea eta, hala badagokio, argiztapenaren eta beste zerbitzu batzuen azpiegituraren herrilana.

5. Kontratistak lanak talde eta giza baliabide egokiekin gauzatu beharko ditu eta une oro lan eta espezialitate desberdinen berezko beharrei erantzun die.

6. Kontratistak kontratuaren zerbitzura topografian teknikari bat jarriko du eta hala eskatzen duten lan guztiak egiteko nahikoa titulazioa izango du.

7. Obrak gauzatzeko behar den energia elektrikoaren hornidura kontratistaren kontura izango da eta, horretarako, hornidura-linea edo -lineak jarri beharko ditu.

8. Era berean, kontratistak obra-zuzendaritzari aire girotua duen bulegoa jarri beharko dio, obran berezkoak dituen funtzioak garatzeko azalera egoki eta nahikoarekin; gainera, panelen bitartez bulegoetan banatuko du eta mahaia, aulkiak eta apalak izango ditu, telefono, fax, energia elektrikoaren hartune eta zerbitzu sanitarioez gain.

9. Kontratistak, obrak amaitzen dituenean edo ahal duen neurrian lehenago, bere kontura kenduko ditu eraikuntza, instalazio eta obra osagarri edo behin-behineko guztiak, baita tresnak, materialak, etab. ere. Kendu ostean, horiekin hartutako tokiak garbitzeari ekingo dio eta, nolana ere, garbiak eta eraikuntza-hondakinik gabe utziko ditu.

10. Kontratistak behin-behineko obrek eta instalazioek eragindako azalera tratatuko ditu, baita jatorrizko egoerara itzuli ere. Hala jarduten ez badu, obra-zuzendaritzak, ohartarazi ondoren, kontrataren kargura lan horiek egitea agin dezake.

11. Kontratistak material guztiak eta berez obra ere eraikuntzaren denboraldian kalte guztietatik babestu beharko ditu eta material sukoi guztiak suteen kontra babestu eta biltegiatuko ditu.

12. Kontratistak erregaien, aglutinatzaileen, olioien edo beste edozein material kaltegarriren ondorioz uren eta lurzorua poluzioa saihesteko neurriak hartuko ditu.

13. Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen arloan betebeharrak: Araudi aplikagarrian aurrez ikusitako betebeharrak gain, lanak hasi baino lehen, obra gauzaten duen pertsona fisiko edo juridikoak jabeari eraikuntza- eta eraispen-hondakinekin zerikusia duten betebeharrak nola gauzatu dituen islatzen duen plana aurkeztu beharko dio; bereziki, *105/2008 Errege Dekretuak, otsailaren 1ekoak, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duenak*, 4.1. eta 5. artikuluetan xedatutako betebeharrak erregiaratuko zaie. Era berean, *112/2012 Dekretuak, ekainaren 26koak, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen produkzioa eta kudeaketa arautzen duenak*, eta *212/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, ingurumen-lankidetzako erakundeak arautu eta Euskal Autonomia Erkidegoan Ingurumen Lankidetzako Erakundearen Erregistroa sortzen duenak*, 6. artikuluan xedatutakoak derrigorrez bete beharko dira.

Plana zuzendaritza eskudunak onartu eta jabetzak baieztatu ostean, obraren kontratu-dokumentuen barruan sartuko da.

Eginbehar horiek betetzen ez badira, SPKLTBk 212. artikuluan aurrez ikusitako zigorrak jarriko dira, kontratuaren xede den prestazioa oker gauzatzeagatik.

Zigorrak ez-betetzearen larritasunarekin bat etorriko dira, proportzionaltasunaren irizpideari jarraiki.

14. Kontratuaren iraupen osoan (luzapenetan barne, hala baleude) eta berme-epan (hedapenak barne) aseguru-kontratua indarrean mantendu beharko du, hirugarrenei egindako kalteen eta asaldatutako ingurumena konpondu eta berreskuratzeko kostuen eta obrarekiko kalteen erantzukizuna estaltzeko. **Estaldurak administrazio-klausulek aipatutako gutxienekoak izango dira** eta berariaz aipatuko dira, besteak beste, ondorengo alderdiak: aseguruak, gutxieneko estaldurak eta zenbateko berrak, epeak eta orri honen "ezaugarrien koadroan" zehazten diren batura aseguruak. Hori guztia kontratua sinatzen den unetik zenbatzen hasita, gehienez hilabeteko epean egiaztatuko beharko da eta, horretarako, jatorrizko poliza eta primak ordainduak daudela azaltzen duten frogagiriak edo aseguru-etxearen ziurtagiriak aurkeztuko dira.

15. Enpresa esleipendunak, publikoak eta nabarmenak ez izanik, kontratuaren xedearekin zerikusia duten datuak eta aurrekariak isilpean gorde beharko ditu, horiek kontratuan zehar ezagutu baditu. Beraz, kontratuaren xede den arloari buruz hirugarrenei ezingo die informaziorik eman eta helburu horiekin obran sartzea ez du utziko, xede horietarako alde zuzenetik Administrazioaren baimena ez badu.

16. Kontratastak Administrazioari modu frogagarrian nortasun juridikoari eragiten dion edozein aldaketa jakinarazi beharko dio; nolana ere, aldaketak egiaztatu arte fakturak ordaintzeko legez aurrez ikusitako epeak eten egingo dira.

17. Beraz, esleipendunak kokagunean beste jarduera batzuk daudela eta obrak jarduera horiekiko eraginik txikiena sortuz egingo direla jakingo du. Era berean, ingurune berean kontratista desberdinak egon daitezke jarduera diferenteekin, hortaz, obran esleipendunak dauden kontraten artean komunikazio-bideak zehaztu beharko ditu eta, aldi berean, erreparatuko die zuzendaritza eskudunak emandako adierazpenei eta afekzioak minimizatzeko jabeak emandakoei.

3. LANEN PROGRAMA

1. Kontratastak gehienez lau laneguneko epean, kontratua legeztatzen den unetik zenbatzen hasita, obran zuzendaritza eskudunak onar dezan eskaintzan sartutako lan-programaren garapen egokia aurkeztu beharko du.

Mankomunitateko organo eskudunak aurkeztu eta hurrengo hiru egunen buruan ebatziko du programari buruz. Ildo horri jarraiki, aldaketak sartzeari edo agindu zehatzak betetzea eska dezake, betiere kontratuaren klausulen kontrakoak ez badira. Onarpen horretan oinarrituta, Administrazioak dagozkion epe partzialak finkatuko ditu.

Zuinketa egiaztatzeko akta eta lanen programa onartzean finkatu behar diren epe partzialak kontratuaren barruan sartuak ulertuko dira eskakizunak betetzeko orduan.

2. Obrak ezingo dira hasi lanen programa onartu gabe.

3. Kontratastak kontratuaren baldintzak aldatzen diren bakoitzean lanen programa eguneratu beharko du eta, ondorioz, finkatu edo eguneratu beharko du, Administrazioak emandako argibideekin bat.

4. Obraren zuzendariak ziurtagiriak ez izapidetzea erabaki dezake kontratastak lanen programa behar bezala aurkezten ez duen bitartean eta ziurtagiriak ordaintzeko orduan atzeratzeagatik ez du atzerapen-interesa jasotzeko eskubiderik izango.

4. LANEAN SEGURTASUN- ETA OSASUN-PLANA

1. Obraren kontratista esleipendunak lanean segurtasun- eta osasun-plana egin beharko du, 1627/1997 Errege Dekretuak, urriaren 24koak, eraikuntza-obretan segurtasunaren eta osasunaren arloan gutxienezko xedapenak zehazten dituenak, 7. artikuluan xedatutakoarekin bat. Bi ale aurkeztuko ditu.

Aipatu plana, koordinatzailearen eta, hori izan ezean, kontratazio-organok izendatzen duen zuzendaritza eskudunaren txostenarekin, obrak hasi baino lehen organo eskudunak onartzeko aurkeztuko da, gehienez hamabost laneguneko epean, kontratuaren esleipena jakinarazten den unetik zenbatzen hasita.

2. Koordinatzaileak edo xede horretarako zuzendaritza eskudunaren izendatutako pertsonak obra osoz edo lan-zati bat behin-behinekoz gelditzea agin dezake, segurtasun- eta osasun-neurriak betetzen ez direla hautematen duenean eta pertsonentzako arriskua berehalakoa edo larria denean. Halakoetan, gaia berehala jakinaraziko diete Lan eta Gizarte Segurantzaren Ikuskaritzari eta gainerako interesatuei, 1627/1997 Errege Dekretuak, urriaren 24koak, 14. artikuluan xedatutakoarekin bat.

3. Ez da obrarik hasiko, bai kontratista esleipendunarentzat, baita azpikontratutako enpresentzat ere lanean segurtasun- eta osasun-plana onartu arte. Obra egiten ari den bitartean kontratastak edo azpikontratastek segurtasun- eta osasun-neurriak betetzen ez dituztelako obrak gelditzea agintzen bada, obrak edo lan-zatiak geldirik egoten diren denbora gauzatze-eperako zenbatzen jarraituko da eta ebatzeko arrazoia izan daiteke, SPKLTBk 212., 213. eta 237. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

5. TALDEA, GIZA BALIABIDEAK ETA BITARTEKO TEKNIKOAK

1. Kontratistak lanak talde eta giza baliabide egokiekin gauzatu beharko ditu eta une oro lanen abiadaren ondorioz sortutako beharrei erantzungo die.
2. Zehatz-mehatz esanda, proiektuarekiko eta obrarekiko beharrezkoa den laguntza teknikoa bere kargura aurrez ikusi beharko du eta lanen eta espezialitateen berezko beharrei arreta eskaintzeko nahikoa gaitasuna izan beharko du.
3. Administrazioak kontratistari bereziki kontuzkoak edo kritikoak diren gai edo arloetan aditu arduradunak izendatzea eska diezaioke, obren zuzendaritza eskudunak hala eskatuz gero.
4. Eskaintzan sartutako edozein teknikari aldatu nahi izanez gero, izendatu nahi den pertsonaren curriculuma aurkeztu ondoren Administrazioak onartu beharko du lehenengo
5. Kontratistak lanaren, gizarte-segurantzaren eta lanean segurtasun eta osasunaren arloan indarrean dauden xedapen guztiak bete beharko ditu eta, ondorioz, eskusiboki bere erantzukizuneko izango da lan-istripuei dagokien guztia. Zehazki, bere kargura eta ardura osoz gauzatu beharko du segurtasun- eta osasun-plana, 1627/1997 Errege Dekretuak, urriaren 24koak, eta orri honek xedatutakoari jarraiki idatzi eta onartutakoa.

Kontratistak eginbehar horiek betetzen ez baditu, Administrazioak ez du erantzukizunik izango.

6. MAKINERIA ETA BITARTEKO TEKNIKOAK

1. Halaber, kontratistak obran proposamenean sartutako makineria eta bitarteko teknikoak eta, orokorrean, hori behar bezala gauzatzeko beharrezkoak direnak jarriko ditu.
2. Eskaintzan sartutako edozein makineria edo bitarteko tekniko ordezkatu nahi izanez gero, Administrazioak onartu beharko du eta, horretarako, alde zuzenetik proposamen justifikatua aurkeztu beharko da.

7. BAIMENAK

1. Kontratistaren kontura eta bere erantzukizuneko izango da obrak behar bezala gauzatzeko baimenak eta lizentziak lortzea; hala, erakunde eskudunen baldintzak eta aginduak bere kargura erantzun beharko ditu. Baimen edo lizentziengatik tasak, fidantzak edo beste gastu batzuk eskatzen direnean, kontratistak ordaindu edo osatu beharko ditu, baita Mankomunitatea sustatzailea izanik izapidetzen dituen ere.
2. Emateko aginpidedunak Mankomunitatea edo Udal kideak direnean, ez da baimenak eskatze eta lortze salbuetsiko. Foru Aldundiko edo udalerrietako errepide eta bideetan zehar legez baimenduak baino karga handiagoekin egindako garraioak alde zuzenetik baimena lortuta egin ahal izango dira eta horien titularrek ezarritako baldintzak zorrozki beteko dira.

8. TRAFIKOAREKIKO AFEKZIOAK

1. Lanerako ordutegia eta egunak kontratuan xedatutako baldintzetara moldatuko dira eta, horiek izan ezean, San Markoko Mankomunitateak edo obren zuzendaritza eskudunak adierazitakoetara.
2. Nolanahi ere, kontratistak Ertzaintzaren eta udalerriko Udaltzaingoaren Trafiko Unitateari jakinarazi beharko dizkio ibilgailuen trafikoarekiko obrak behartzen dituzten afekzioak eta etenaldia.

9. SEINALEZTAPENAK

1. Kontratistak bere kontura eta kargura instalatu beharko ditu lanen zonan eta inguruetan trafikoaren erregulazioa adierazteko beharrezkoak diren seinaleak. Gauza bera egin beharko du arriskua egon daitekeen puntuetan, baita obrek eragiten duten puntuetan ere. Zabortegira sartzeko errepidea ere

seinaleztatu egin beharko da. Alderdi horretan herrietatik kanpo dauden bideetan seinaleztapen, balizaje, defentsa, garbiketa eta obra finkoen amaierari buruzko 8.3-IC Instrukzioak, 1987ko abuztuaren 31ko Ministerioaren Aginduaren bidez onartutakoak, xedatutakoa beteko da.

Era berean, obrak hasten diren unetik esleipendunak identifikatzeko erabiltzen den seinaleztapenean obraren identifikazio-kartelak jarriko ditu eta Mankomunitateak onartutako ereduaren arabera, bi hizkuntzatan obraren izena, kontratistaren izena eta azpian Mankomunitateari dagozkion izena eta logoa azalduko dira.

2. Gainera, kontratistak seinale osagarriak jarri eta jada daudenak aldatzeari buruz obraren zuzendaritza eskudunetik idatziz jasotako aginduak beteko ditu.

3. Ez da obrarik hasiko obra-zuzendaritzak seinaleztapena onartzen ez duen bitartean. Obra egiten ari den bitartean seinaleztapenak obra-zuzendaritzaren iritziz araubidezko aginduak betetzen ez baditu, seinaleztapena zuzendu arte lanak gelditzea agin dezake.

Neurri horien ondorioz obretan izandako atzerapenak kontratistari egotziko zaizkio.

10. KALTETUTAKO ZERBITZUAK

1. Kaltetutako zerbitzuak lehengoratzeko kontratuaren barruan sartzen da, proiektuak berak egiten dituen aurreikuspenen babesean eta obraren agertzen diren guztietara zabalduko da, nahiz eta horretan aurrez ikusiak ez egon.

2. Salbuetsiak daude Iberdrola S.A., Telefónica S.A., Euskaltel eta Correos y Telégrafos S.A. enpresei dagozkien zerbitzuak, baita gas-enpresa hornitzaileei dagozkienak ere. Horiek guztiek berez egingo dituzte proiektuak eta obrak. Halaber, Administrazioak berak, titularren edo hirugarrenen bitartez, kudeatu nahi dituen zerbitzuak kanpoan geldituko dira.

3. Kontratistak lanen programa eta kaltetutako zerbitzuak (kontratuaren barruan sartzen direnak eta aipatu enpresei dagozkienak) kendu nahiz lehengoratzeko moldatu eta koordinatu beharko ditu.

4. Zerbitzuak kontratistak lehengoratzen dituen bitartean, lanak proiektuaren obra-unitateen bitartez ordainduko dira edo horiek existitzen ez badira, legez xedatutako prozedurekin bat finkatzen diren prezio berrien bidez.

5. Jarduera bereziak edo ohiz kanpokoak izanik, ohizko obra-unitateetan banatzen ez badira, Administrazioak hirugarrenek fakturatu, kontratistak ordaindu eta Administrazioak itzultzeko aukera gordetzen du.

11. KALTE-GALERAK HIRUGARRENEI

1. Obrak gauzatzen ari diren bitartean zuzenean edo zeharka hirugarrenei kalterik ez sortzeko kontratistak arreta handia izango du; hala, erantzukizun eksklusiboa izango du horien ondorioz sortutako kalte-galerei dagokienez.

2. Lanak garatzen ari diren bitartean, bere kargura dituen langileen ekintzengatik, ez-egiteengatik edo axolagabekeriengatik ala obraren antolaketa, babes eta seinaleztapen urriengatik kontratista edozein pertsona, jabetza edo zerbitzu publiko edo pribaturi eragindako kalte-galeren arduraduna izango da.

3. Enpresa esleipendunak une oro erantzukizun zibilaren aseguru-kontratua (orokorra, patronala edo gurutzatua) izango du kalte-galera horien aurrean erantzuteko eta gutxienezko estaldura Administrazio Baldintza Berezien Orriak xedatutako zenbatekoa izango da. San Markoko Mankomunitatea berariaz azalduko da polizan aseguratu bezala.

Era berean, eraikuntzarako esleipen-zenbatekoarengatik arrisku orotarako asegurua izango du. Helburua eraikuntzaren denboraldian obrak izan ditzakeen kalteak estaltzea da eta Mankomunitateari aseguratu bezala sartuko zaio.

4. Administrazioak egokitzat jotzen duenean, kontratatutako obrak gauzatzearen ondorioz hirugarrenei eragindako kalte-galerez zuzenean erantzun ahal izango du eta gero gastua enpresa kontratistari jasanaraziko dio, entzun ondoren, baita kalteak egindako jardueren ingurumen-erantzukizunaren ondorioz sortutakoak direnean ere.

Egindako gastua jasanarazteko, Administrazioak enpresari zor zaion edozein zenbateko atxiki daskioke edo fidantza-modura osatutako abala erabil dezake. Administrazioak berak aukeratuko du modua.

12. OBRAK GAUZATZEA

Funtsean IIa azpifasean honako lanak gauzatzea sartuak daude:

- Dagoen lursaila konformatzea A eta B zonatan goiko zigilua jartzeko proiektuaren definizioa lortzeraino; honakoek osatuko dute: erregularizazio-geruzak, zigilu mineralak (bentonita-geruza), zigilu sintetikoak (goi-dentsitateko polietilenoazko geomintza), eta euri-iragazpenaren urak hustea ahalbidetzen duten elementuak eta lurren azkeneko geruza.
- Putzu berria eraikitzea eta A eta B zonen zigiluaren azpian gasak bildu eta husteko elementuak instalatzea.
- Proiektuaren definizioa lortzeraino dagoen lursaila konformatzea, C zonan aldi baterako goiko zigilua jartzeko. Lurren azken geruzak osatuko du.
- C zonan putzu berriak eraiki eta lixibiatuen isuriak biltzeko sistema instalatzea.
- Isurketa-urak husteko drainatze-sistema eraikitzea.
- Perimetro-bideak eraikitzea.
- B zonan bidea eta plataformak eraikitzea.

Ondoren obra-unitate nabarmenen deskribapen laburra dago.

12.1. Bideak

A) Obra-bideak

B zonan lanak hasi baino lehen, behin-behineko zerbitzu-bidea gaituko da B zonak C zonarekin osatzen duen kanpoko mugatik, negutegien zonarako plataformarantz kamioak iristeko. Bertan kokatuko dira obrek irauten duten bitartean kimaketa eta tamaina handiko hondakinen tratamenduari dagozkion azpiegiturak. Bideak zabortegira sartzeko bidea eta mendebaldeko perimetro-bidea elkartuko ditu.

B) A-B perimetro-bidea

Zabortegiaren mendebalde osoan perimetro-bidea gauzatuko da, mugekin bermetara iritsi eta drainatze-sistemak mantentzeko. Hasieran dagoen perimetro-bidetik abiatuta eraikiko da eta, ondoren, Txurdiñeneko mihian azaltzen den beheko puntua deuseztatzeko eta iristen diren isurketa-urak drainatzeko hondeatuz.

C) Dorre elektrikora iristeko C-D bidea

C-D bidetik zabortegiaren mendebaldean, mendi-mazelaren goiko aldean, kokatutako dorre elektrikora iristen da. Txurdiñeneko mihian azaltzen den beheko puntua deuseztatzeko eta iristen diren isurketa-urak drainatzeko hondeatzen denean eraikiko da.

D) Negutegietako beheko plataformara iristeko E-F bidea

Zabortegiaren mendebaldeko perimetro-bidera eta negutegietako zonan beheko plataformara iristeko bidea gauzatuko da. B zonaren azken konformatu-lanetan zehar eraikiko da.

E) Zabortegira sartzeko bidea

Ila azpifasearen amaieran, berreskuratze- eta ixte-obretan sortutako kalteak lehengoratzeko, sartzeko bidearen errodadura-geruza berriz egingo da zabortegiaren sarreratik transferentzia-plantaren aurrean dagoen bidegurutzeraino.

12.2. Euste-elementuak

A-B eta C-D bideen inausketa-ezpondetan hormigoiz osatutako harri-lubetaren hormak eraikitzea proiektatzen da. 2,00 eta 4,00 m bitarteko altuera izango dute.

12.3. Hondeaketa eta betelana

A) Hondeaketa eta betelanaren kotak berriz profilatzea

Gainazala bateratzeko, material geosintetikoak errazago instalatzeko eta isurketa-urek draina dezaten beharrezkoak diren gutxienezko aldapak ziurtatzeko, bertan dauden materialekin proiektuan definitutako kotetara iritsi arte hondeaketa- eta betelan-lanak egin nahi dira. Lanen ondorioz sortutako aldapak gutxienez gutxi gorabehera % 2,50 eta 2,5H:1V gehieneko ezpondaren bitartean ibiliko dira.

Gainazalak material geosintetikoak instalatzeko ezaugarri egokiak izango ditu. Hondeaketa-betelaren azken korformatu-kota gutxienez 0,30 m-ko lodiera duen geruza batek osatuko du. Bertan aurreko zigilu mineralen agertzen ziren materialak egongo dira. Horren gainean 0,30 m-ko lodiera duen erregularizazio-geruza izango da eta harri-elementuzko lur libreek osatuko dute.

Hondeaketa-betelanaren egitura hondeatuz eta, ondoren, hondeaketatik ateratako lurrak eta hondakinak nahiz metatutako edo mailegatutako lurrak erantsiz lortuko da. Lurrekiko material asimilagarriak, material geosintetikoa estaltzeko edo erregularizazio-geruza instalatzeko egokiak badira, aldeztu aurretik zehaztutako tokira eraman eta bertan metatuko dira gero erabili ahal izateko. Material guztiak (hondakinak barne) iragazgaitzeko aurrez ikusitako areetan dauden betelan-zonetara eramango dira.

Hondakinak hondeatzen diren zonatan gaindiz hondeatu beharko da, zigilu mineral zaharraren eta erregularizazioaren geruzak instalatu ahal izateko. Betelanaren kasuan, lehenik eta behin zigilu mineral zaharraren geruza hondeatuko da, ondoren, hondakinekin betetzeari ekingo zaio eta, azkenik, zigilu mineral zaharraren eta erregularizazioaren geruzak instalatuko dira. Salbuespenez, zabortegiaren beheko ezpondan, proiektuak definitutako kotak lortzeko, egungo zigilu minerala kendu, hondakinez bete eta azken kotan 0,30 m-ko lodiera duen legar ofitikoaren geruza zabalduko da.

B) Hondakinak hondeatzea

Hondakinak hondeatzeari dagokion unitateak, zehatz-mehatz esanda, Ila azpifasean C zonan hondeaketa-betelan kotak lortzeari dagokionak, derrigorrez kronograman adierazitako epeak bete beharko ditu, zabortegian usainak eta biogasa ekoiztearen ondorioz sortutako eragozpenak minimizatuz.

Xede horretarako **5 hilabete** ematen dira. Epe horretan 185.000 m³ inguru hondeatu beharko da, nagusiki, hondakinak eta material egokiarekin estali beharko da, beraz, guztira 222.000 m³ inguru izango dira. Hilabete horietan zona batzuetan hondakinak ateri egongo dira, beste batzuetan, berriz, hondeaketa-kotetara iristen egongo da eta, azkenik, azken egitura-kotetan daudenak ere aurkitu ahal izango dira. Nolanahi ere, ahalik eta hondakin gutxienez ateri egotea saiatu beharko da.

5 hilabetetik gorako epea gaindituz gero, zigorrak aplikatuko dira.

12.4. Lixibiatuak drainatzea

Zabortegiaren hondoko drainatzerantz, lehenengo ezpondaren aurrealdean (dikearen gailurraren eta lehenengo bermaren artean), atera daitezkeen lixibiatuak hartu eta bideratzeko sistema definitu da. Sistema

perimetro-zangak osatzen du eta goiko aldean gasa ateratzeko tximinia bati (gainazalera iristen den biogasa hartzeko) eta beheko aldean dikearen ezproian dauden drainatze-hodieiei (zehazki esanda, hiru, limahoya bakoitzean bana eta hirugarrena erdian) konektatzen zaie. Sistema amaitzeko 18/25 legar ofitikoaren azalera guztian geruza jartzen da.

12.5. Gasa ateratzea

Ila azpifasearen A eta B zonatan, hondeaketa-betelanaren kotekin gainazala lortu duenean, eta zigilatze-jarduerari ekin baino lehen, biogasa atera eta drainatzeko puntu berriak eraiki beharko dira. C zonatan putzu berriak azken egitura-kotak lortzen direnean eraikiko dira.

Putzuez eta horiekin zerikusia duten hodian sistemaz gain, kutxetak eraikiko dira, beheko puntuetan biogasaren kondentsatuak deuseztatzeko. Gainera, biogasaren tratamendu-plantara sartzeko kutxeta egingo da.

12 putzu berri instalatzea aurrez ikusi da eta egungo putzuen artean dauden hutsuneetan zehar banatuko dira.

12.6. Gainazala zigilatzea

A eta B zonatan erabilerarik gabeko azaleraren gainean jarri behar den zigiluak behetik gorantz honako material-sekuentzia izango du (gutxieneko lodira: 1,10 m):

- 0,30 m-ko lodiera duen erregularizazio-geruza (harri-elementuzko lur librea) (geruza honen goiko alde hondeaketa-betelanaren kotarekin bat etorriko da)
- Bentonita-manta
- Goi-dentsitateko polietilenoazko (PEAD) geomintza, 2 mm-ko lodierarekin eta bi aldeetan testurarekin.
- Iragazpen-uren drainatze-geokonposatua
- 0,50 m-ko lodiera duen harri-materialezko lur librea
- Landare-lurra 0,30 m-ko lodierarekin

Bidearen eta B zonako plataformaren gainean jarri behar den zigiluak behetik gorantz honako material-sekuentzia izango du (gutxieneko lodira: 1,30 m):

- 0,30 m-ko lodiera duen erregularizazio-geruza (harri-elementuzko lur librea) (geruza honen goiko alde hondeaketa-betelanaren kotarekin bat etorriko da)
- Bentonita-manta
- Goi-dentsitateko polietilenoazko (PEAD) geomintza, 2 mm-ko lodierarekin eta bi aldeetan testurarekin.
- Iragazpen-uren drainatze-geokonposatua
- 18-25 kareharrizko legar-geruza 0,30 m-ko lodierarekin
- 200 g/m²-ko PPren geoehun iragazkia
- Zabor-legarraren geruza 0,25 m-ko lodierarekin
- ZA-25 zabor-legarraren geruza, 0,45 m-ko lodierarekin.

C zonatan erabilerarik gabeko azalera aldi baterako gainazaleko zigilua jarriko da behetik gorantz honako material-sekuentziarekin (gutxieneko lodira: 1,10 m):

- 0,30 m-ko lodiera duen erregularizazio-geruza (harri-elementuzko lur librea) (geruza honen goiko alde hondeaketa-betelanaren kotarekin bat etorriko da)
- 0,50 m-ko lodiera duen harri-materialezko lur librea
- Landare-lurra 0,30 m-ko lodierarekin

C zonatan plataformetara bideratutako azalera aldi baterako gainazaleko zigilua jarriko da behetik gorantz honako material-sekuentziarekin (gutxieneko lodira: 1,30 m):

- 0,30 m-ko lodiera duen erregularizazio-geruza (harri-elementuzko lur librea) (geruza honen goiko aldea hondeaketa-betelanaren kotarekin bat etorriko da)
- 0,65 m-ko lodiera duen harri-materialezko lur librea
- ZA-25 zabor-legarraren geruza, 0,45 m-ko lodierarekin.

A eta B zonatan zigitatze-paketea instalatzeko orduan, bere egunean zabortegearen I. fasea itxi eta berreskuratzeko obratan instalatutakoarekin jarraipena izango du. I. fasean behetik gorantz jarri zen materialen sekuentzia ondorengoa izan zen (gutxieneko lodiera: 1,10 m):

- Erregularizazio-geruza (harrizko elementurik gabeko lurra), 0,30 m-ko lodiera duena.
- Geokonposatu bentonikoa (NAUE etxeko BENTOFIX B 4000 marka).
- Dentsitate handiko polietilenoazko (HDPE) geomintza, 2 mm-ko lodierakoa eta bi aldeetan testuraduna (NAUE etxeko CARBOFOL 406 FRICTION/FRICTION marka).
- Iragazketa-ura drainatzeko geokonposatua (NAUE etxeko SECUDRÄN 151 WD 501 151 marka).
- Harrizko elementurik gabeko lurra, 0,80 m-ko lodierakoa.

12.7. Azken egitura

A eta B zonetan zigilua jarri ostean eta C zonan erregularizazio-geruza zabaldu ondoren, gainazalak konformatuko dira proiektuan definitutako kotak lortu arte. Aurreko puntuan zabortegearen zona desberdinetarako material geosintetikoaren gainean estaldura osatuko duten materialen konposizioa azaltzen da.

12.8. Gainazaleko drainatzea

A) Gainazaleko urak drainatzea

Orokorrean, diseinatutako drainatze-sarea bi multzotan bana daiteke: perimetro-drainatzea mendebaldean eta barruko drainatzeak.

Mendebaldeko perimetro-drainatzea sekzio handiko kanal angeluzuzenek eratuko dute, A2/A5 tartean (zorrotan mailakatua dago) eta A9/A9-1B kanalaren tartean izan ezik. Azkenekoa dorre elektrikora iristeko bideari lotuta dago.

Barruko drainatzeak honakoak hartzen dituzte: ekialdeko kanal periferikoak (trapezioaren itxurakoak), mendebaldeko konexio-kutxetak, C zonan bermen kanalak (lurrean hondeatutakoak eta 1,5 mm-ko lodiera duten PEAD-ko geomintzez estaliak), B zonan plataformen drainatze-sarea eta bi kanal artikulatu handi zabortegearen iragazgaizpenean eginak (hori alde aurretik babestu ondoren).

B) Iragazpen-urak drainatzea

Iragazpen-urak azalera guztian drainatze-geokonposatua jarriz drainatuko dira. Modu osagarrian, B zonan beheko bidearen eta plataformen areatan, drainatze-geokonposatuaren gainean 18-25 kareharrizko legar-geruza jarriko da 0,30 m-ko lodierarekin. Bildutako ura ezponden oinetan kokatutako kanaletarantz drainatuko da.

Zabortegearen perimetroan kokatuak dauden material geosintetikoak ainguratzeko zangen kasuan, horietan iragazitako ura zangaren betelanaren (18-25 kareharrizko legarra) bitartez jasoko da, ondoren, ura zangaren azpian kanal edo hustubide hurbilenean husteko.

12.9. Berriz landatzea eta itxiturak

Lubeta- eta inausketa-ezpondak berriz landatuko dira belardietako espezieekin ereingo dira ura erabiliz, paisaia integratu eta erosioa murrizteko. Lan horiek haziak erne eta errotuko direla ziurtatu dagoen garaian egingo dira.

Itxiturari dagokionez, San Markoko errepidearen alboko perimetroan batez beste 0,5 m-ko altuera duen hormatxoa gauzatuko da. Modu mailakatuan eraikiko da errepidearen aldapa orekatzeko eta, ondoren, horren gainean 2,00 m-ko altuerarekin panel zurrinak erabiliz hesia jarriko da.

Zaborteziaren gainerako perimetroan 2,00 m-ko altuera izango duen itxitura jarriko da eta tortsio sinpleko sareak osatuko du.

13. SAIKUNTZAK ETA PROBAK

1. Obren zuzendari eskudunak edozein unetan materialen eta obra-unitateen saiakuntzak, probak eta analisiak egiaztatzea eska dezake, bere iritziz beharrezkoak badira.

2. Obraren kalitate-kontrol orokorrari dagozkion saiakuntzez gain, kontratistak material geosintetikoaren kontrolei buruzko saiakuntzak egingo ditu. Material horien gainean honako saiakuntzak egingo dira:

A) Zigilatze-paketea osatzen duten materialen adostasun-testa.

PEAD-ko geomintzen gainean hurrengo saiakuntzak egingo dira:

- ✓ Dentsitatea
- ✓ Lodiera
- ✓ Kearen edukia beltzean
- ✓ Ke beltzaren sakabanatze-maila
- ✓ Fluidotasun-indizea
- ✓ Urradurarekiko erresistentzia
- ✓ Zulaketarekiko erresistentzia
- ✓ Propietate tentsodeformazionalak

Bentonita-manten gainean ondorengo saiakuntzak egingo dira:

- ✓ Guztizko pisu unitarioa
- ✓ Lodiera
- ✓ Montmorillotnitaren ehunekoa
- ✓ Propietate tentsodeformazionalak
- ✓ K iragazkortasuna

Drainatze-geokonposatuen gainean honako saiakuntzak egingo dira:

- ✓ Pisu unitarioa
- ✓ CBR zulaketarekiko erresistentzia
- ✓ Propietate tentsodeformazionalak
- ✓ Poroak irekitzea
- ✓ 2 kN/m²-ko kargaren azpian lodiera
- ✓ Planoan fluxuaren ahalmena (transmisibitatea)

B) Zigilatze-paketea osatzen duten material desberdinen artean zuzeneko ebakiaren saiakuntza

Zaborteziaren estaldura osatzen duten material desberdinen artean dagoen kontaktuko zuzeneko ebakiaren saiakuntza (DIN EN ISO 12957-1 arauarekin bat) egingo da.

- Erregularizazio-geruza vs. bentonita-manta.
- Bentonita-manta vs. goi-dentsitateko polietilenoazko geomintza.
- goi-dentsitateko polietilenoazko geomintza vs. drainatze-geokonposatua.
- Drainatze-geokonposatua vs. lurrez osatutako estaldura-geruza.

3. Obraren kontratista nagusia eta, hori izan ezean, material geosintetikoaren instalatzailea gauzatzen diren saiakuntzak eta landa-probak (suntsitzen dutenak ala ez) egitez arduratuko da eta aipatu materialak instalatzeko orduan kalitatea kontrolatzen duen erakundeak ikuskatuko ditu.

4. Obrak amaitzen direnean, horiez gain, beharrezko probak egingo dira eta proba horien emaitzarekin akta idatziko da.

5. Proiektua, gauzatzea eta proben ebaluazioa langile adituek egingo dute, kasu bakoitzean obraren zuzendari eskudunak finkatutako baldintzekin.

14. OBRAREN GAUZATZEKO IBI-REN BALDINTZAK

Ila azpifaseari dagozkion obrak *'Ingurumen Sailburuordetzak 2012ko uztailaren 31ko Ebazpenak, SAN MARKOKO MANKOMUNITATEAK sustatu ostean, Astigarraga, Donostia eta Errenteriako udalerrietan (Gipuzkoa) hondakin ez-arriskutsuen zabortegia zigilatu, mantendu eta itxi ondoren kontrolatzeko baimena ematen duenak'* xedatutakoa betez egingo dira.

Bereziki, Ebazpenaren hurrengo puntuei erreparatu zaie:

D.1. Obra-fasearen baldintza orokorrak

D.1.1. Jarduera-eremua mugatzea

a) Obrak nahiz lurzorua hartzea eskatzen duten eragiketa osagarriak proiektuaren mugen barruan garatuko dira. Aipatu mugetatik kanpo obra-makineria eta -ibilgailuen zirkulazioa ahalik eta gehien mugatuko da.

b) Aipatu eremutik kanpo ustekabeko afekzioak badaude, neurri zuzentzaile eta lehengoratzeko neurri egokiak aplikatuko dira, Ebazpenaren D.1.7. atalean adierazitako ingurumen-aholkularitzak txostena egin ondoren.

c) Obra-sarbideak, makineria-ontzidia, obra-materialak aldi baterako biltegitratzeko area eta hondeaketa-lurrak nahiz hondakinak aldi batean metatzeko area gutxienez ingurumen-afekzioen irizpideei jarraiki proiektatuko dira. Arestiko alderdiei dagokienez, obrak hasi baino lehen, zehaztapen-kartografian mugaketa zehatza egingo da. Mugaketa obra-zuzendaritzak onartu beharko du, Ebazpenaren D.1.7. epigrafean adierazitako ingurumen-aholkularitzak txostena egin ondoren.

D.1.2. Lurzorua eta urak babestera bideratutako neurriak

a) Obraren makineria-ontzidia hartzera bideratutako azalera eta horiek mantentzeko zona drainatze-sare naturaletik isolatuko da. Zola iragazgaitza eta efluenteen bilketa-sistema izango ditu, lurzorua eta urak olioen eta erregaien ekintzaz ez poluitzeko. Ezingo dira erregaien zamalanak, olio-aldaketak eta tailerraren berezko jarduerak egin aipatutako zonetatik kanpo.

b) Eraikuntza-fasea finak drainatze-sare naturalean ahalik eta gutxien botata egingo da. Horretarako, urak bideratzeko gailuak eta solido esekiak geldiarazteko sistemak proiektatu eta gauzatuko dira; horietan obraren ondorioz poluitutako urak jasoko dira.

D.1.3. Hautsen igorpena gutxitzea bideratutako neurriak

a) Obrak irauten duen bitartean, bideak eta, bai obrek eragindako ingurunean, bai horietara sartzeko areatan, ibilgailuak pasatzen diren beste zona batzuk garbitzen direla zorrozki kontrolatuko da. Pistak eta behin-behineko soilak dauden azalera ureztatzeko sistema izango da.

b) Obra-zonetatik ateratzeko puntuetan ibilgailuak garbitzeko tresnak egongo dira. Tresnen ezaugarriak eta kokapen zehatza Ebazpenaren, D.1.8. puntuan, aipatutako dokumentazioan jaso beharko dira.

D.1.4. Zaraten eta bibrazioen ondorioak murriztea bideratutako neurriak

Eraikuntza-fasean zehar proiektuan eta Ebazpen honetan deskribatutako neurriak aplikatu beharko dira, makineriak 212/2002 Errege Dekretua, otsailaren 22koa, aire zabalean erabiltzen diren makina

zehaztek inguruan igorritako soinuak arautzen dituena, mantentze-lan eta lan-ordutegiari buruzko apirilaren 28ko 524/2006 Errege Dekretuaren bidez aldatutakoa, betetzeko.

D.1.5. Hondakinak kudeatzera bideratutako neurriak

a) Obran sortutako hondakinak, hondeaketetan ateratakoak barne, lan-zatiak prestatzeko eragiketetan sortutakoak, bilgarriak, errefusatu diren lehengaiak eta garbiketa-kanpainakoak 22/2011 Legeak, uztaillaren 28koak, hondakin eta lurzoruei buruzkoak, eta araudi berezi aplikagarriek xedatutakoaren arabera kudeatuko dira.

b) Obretan sortutako hondakinei tekniko eta ekonomikoki modu bideragarrian balioa ematea posible bada, behar bezala baimendutako hondakinen balio-emateari bidaliko zaizkio. Hondakinak deuseztatzeko, alde zuzenetik modu egokian justifikatu beharko da ezin zaiela teknikoki, ekonomikoki edo ingurumenaren ikuspegitik bideragarritasunez baliorik eman.

c) Berrerabili ezin izan diren edo baliorik eman ezin izan zaien materialak, zabortegira botatzekoak, zabortegietan hondakinak onartzeko irizpide eta prozedurekin bat kudeatuko dira.

d) Betelanetarako edo lursailak moldatzeko hondakinak 49/2009 Dekretuak, otsailaren 24koak, zabortegian isuriz eta betelanak gauzatu hondakinak deuseztatzea arautzen duenak, xedatutakoarekin bat kudeatuko dira.

e) Hondeaketaren soberakinak botatzeko betelana sustatu nahi bada, 49/2009 Dekretuak, otsailaren 24koak, zabortegian isuriz edo betelanak eginez hondakinak isurtzeari buruzkoak, xedatutakoa betez, betelanaren proiektua idatzi beharko da, Udalaren edo Organo honen administrazio-lizentzia lortzeko, aipatu legeriaren 26. artikuluan xedatutakoaren babesean.

f) Olio erabiliak 259/1998 Dekretuak, irailaren 29koak, Euskal Autonomia Erkidegoaren (EAE) eremuan olio erabiliak kudeatzeari buruzkoak, eta 679/2006 Errege Dekretuak, ekainaren 2koak, industria-olio erabiliak kudeatzeari buruzkoak, xedatutakoari jarraiki kudeatuko dira.

Kudeatzaile baimenduak jaso arte olio erabiliak aldi batean biltegitratzeko, ontzietan edo segurtasun-sistemetan sartutako tangak erabiliko dira, tanga nagusiak iragazgaiztasuna galduz edo puskatuz gero olioak ez sakabanatzeko. Horretarako, kontratistak dituenak edo SAN MARKOKO MANKOMUNITATEAK San Markoko zabortegiaren instalazioetan dituenak erabiliko dira.

g) Hondakinen kudeaketaren arloan legeria errazago betetzeko, lan desberdinetan sortutako hondakinak kudeatzeko sistemak izango dira. Sistemak lanen arduradunek kudeatuko dituzte eta langileek behar bezala erabiltzearekiko erantzukizuna izango dute. Berezi, erregaiak eta produktuak biltegitratzen diren tokietan ez dira inolaz ere kontrolik gabeko efluenteak sortuko. Gauza bera gertatuko da makineria mantentzen den tokietan. Gainera, ez da hondakinik erreko.

Aurrekoarekin bat, zona berezi bat moldatuko da eta bertan hondakin arriskutsuak (hala nola olio-latak, iragazkiak, olioak, pinturak, etab.) aldi batean biltegitratzeko instalazio estaliak egingo dira. Horrez gain, horietatik bereizita, hondakin ez-arriskutsu eta inerteetarako edukiontzi bereziak hartuko dituen zona gaituko da. Edukiontziak kudeatzaileari entregatu arte itxiak egongo dira, isuri edo lurruntzeagatik edozein eduki-galera saihesteko. Era berean, obran zehar sortutako hondakinak biltzeko tresna hermetikoa (bidoiak, etab.) jarriko dira eta izaeraren arabera bereiziko dira, hori guztia puntu garbian aldi baterako biltegitratu baino lehen. Xede horrez, kontratistak dituenak edo SAN MARKOKO MANKOMUNITATEAK San Markoko zabortegiko instalazioetan dituenak erabiliko dira.

D.1.6. Garbiketa eta obra amaitzea

Obra amaitzen denean, garbiketa-kanpaina egingo da eta proiektuaren eragin-area obra-hondarrez garbi-garbia geldituko da.

D.1.7. Ingurumen-aholkularitza

Obra amaitzen den arte eta berme-epean, obra-zuzendaritzak ingurumen eta neurri babesle nahiz zuzentzaileen alderdian aholkularitza prestatua izan beharko du. Aipatu gaiei buruz baldintzen orriak emandako funtzioekin zerikusia duten obra-zuzendaritzaren ebazpenak aholkularitza eskaintzen duten adituek txostena egin ondoren formulatuko dira.

D.1.8. Lanen programa diseinatzea

Honako azpiataletan aipatzen diren alderdiei buruz kontratistak hainbat jarduera-proposamen zehatz egin beharko du. Proposamenak kasu bakoitzean Ebazpenean zehazten diren irizpideen arabera diseinatuko dira eta obra-zuzendariak berariaz onartu beharko ditu, aurreko atalean adierazi den ingurumen-aholkularitzak txostena egin ondoren. Horiek lanak gauzatzeko programaren barruan sartuak geldituko dira. Dokumentuak ondoren zehaztutakoak dira:

- a) Kontratistaren instalazioen eta hondakinak aldi batean biltegitzeko areen kokapenari eta ezaugarriei buruzko zehaztapenak, Ebazpenaren D.1.1. atalean aurrez ikusitakoari jarraiki.
- b) Kartografia xehean landaretza-gune interesgarriak seinaleztatzea, zuzeneko okupaziorik aurrez ikusten ez bada. Horiek Ebazpenaren D.1.2. atalean aipatzen dira.
- c) Ebazpenaren D.1.2. atalean aurrez ikusitakoaren arabera, solido esekiak geldiarazteko tresnen zehaztapenak eta kokapena.
- d) Ebazpenaren D.1.3. atalean aurrez ikusitakoari jarraiki, ibilgailuak garbitzeko tresnen zehaztapenak eta kokapena.

D.1.9. Obrak garatzen ari diren bitartean praktika onak kontrolatzea

Obrak garatzen ari diren bitartean praktika onak kontrolatuko dira eta arreta berezia jarriko zaie hurrengo alderdiei: kaltetutako azalera eta ur-ingurunearen babesa; hondakinen kudeaketa, hondeaketa-soberakinak barne; solido esekiak geldiarazteko tresnen funtzionamendua; hauts eta zarata sortzea; eta Ebazpenean aipatutako beste alderdi batzuk.

D.1.10. Obraren amaierako txostena

Obra amaitu eta hilabetearen buruan, SAN MARKOKO MANKOMUNITATEAK Ingurumen Organoari obraren amaierako ziurtagiria bidali beharko dio, obra-zuzendaritzak sinatuta eta honako dokumentazioarekin:

- Obren garapenean sortutako gorabeherak.
- Ebazpenean jasotzen diren neurri babesle eta zuzentzaileen eta hondeaketa-materialak modu egokian kudeatzeko ingurumen-organoak eskatutako neurrien betetze-maila.
- Obra gauzatu den bitartean, hala badagokio, sartu diren aldaketak; horiek zehatz-mehatz dokumentatuak egongo dira eta ingurumenaren segurtasuna edo babesa murrizten ez dutela justifikatu (bidezkoa bada, justifikazio-kalkuluak) beharko da. "As built" planoak erantsiko dira.
- Obran gauzatutako ingurumen-zaintzari buruzko programaren emaitzekin txostena, sortutako hondeaketa-materialen jomuga zehazta eta kopurua barne.
- Eraikuntzaren kalitate-bermearen kontrolari buruzko emaitzekin txostena; arreta berezia jarriko zaio geosintetikoaren edo bertan trinkotutako material minerala erabiliz egin diren hesi geologiko artifizialen instalazioari

D.2.5. Lurzorua babesteari buruzko baldintzak

a) 9/2005 Errege Dekretuak, urtarrilaren 14koak, lurzoruak polui ditzaketen jardueren zerrenda eta lurzoru poluituak aitortzeko irizpideak eta estandarrak zehazten dituena, nahiz 1/2005 Legeak, otsailaren 4koak, xedatutako eginbeharrak betez aurkeztu den aldez aurretiko lurzoruaren egoerari buruzko txostenarekin bat, bertan dauden gomendioak kontuan hartuta, SAN MARKOKO MANKOMUNITATEAK lurzoru babesten dela ziurtatzeko neurriak, baita egokitzat jotzen dituenak edo Ingurumen Organoak eskatzen dituenak ere hartu beharko ditu.

Era berean, SAN MARKOKO MANKOMUNITATEAK Ebazpenaren G.3. atalean ohiz kanpoko funtzionamenduaren kasuan prebenitu eta jarduteari buruz eta Ebazpenaren D.2.4. atalean hondakinak biltegitzeari buruz azaltzen diren neurriak hartuko ditu.

b) Obrekin lurra mugitu behar badira, bai produkzioko jarduera-areatan, bai ez dutenean, jardueraren sustatzaileak hondeaketaren materialak (lurrak, eraikuntza-hondakinak, etab.) karakterizatu beharko ditu, poluzio-ekintzen ondorioz kaltetuak izan daitezkeen egiaztatzeko eta karakterizazioaren emaitzen arabera, horien kudeaketa-biderik egokiena zehazteko. Obrak jarduerarik gauzatu ez den zonatan egiten direnean, karakterizazioaz salbuetsi daiteke, betiere jarduerarik eza behar bezala justifikatzen denean.

Material soberakinak instalazioan bertan erabili nahi izanez gero, 1/2005 Legeak, otsailaren 4koak, lurzoruaren poluzioa prebenitu eta zuzentzen duenak, xedatutako VIE-B balioa baino txikiagoa izan beharko dute eta lurretan hidrokarburoen edukia ez da arriskutsua izango. Soberakinak zabortegean isuri nahi badira, karakterizazioa 49/2009 Dekretuak, zabortegean isuriz eta betelanak eginez hondakinak deuseztatzeari buruzkoak, xedatutakoaren arabera egin beharko da. Otsailaren 4ko 1/2005 Legeak xedatutakoari jarraiki, VIE-A azpiko balioak lortzen dituzten lurra lursail naturaltzat joko dira eta, ondorioz, erabilera-mugarik ez dute izango.

Era berean, otsailaren 4ko 1/2005 Legeak 10. artikuluko 2. atalean xedatutakoaren babesean, jarduera ezarri edo zabaltzeko hondeaketa-eragiketetan edo lurra mugitzen ari diren bitartean poluzioaren aztarnak izan daitezkeela hautematen bada, jardueren zuzeneko arduradunak alderdi hori Udalari eta Ingurumen Sailburuordetzari jakinarazi beharko die, hartu beharreko neurriak definitzeko, 17. artikuluko seigarren atalarekin bat.

D.2.6. Zaratari buruzko baldintzak

Honako mailak ez gainditzeko neurri guztiak jarriko dira:

a) Hurrengo indize akustikoak ez gainditzeko neurri guztiak instalatuko dira:

a.1) Jarduera leiho eta ate itxiekin etxebizitzan barrualdera transmititutako LAeq,60 segundo zarataren indizeak 7:00etatik 23:00etara bitartean 40 dB(A) ez gainditzeko moldatuko da. Halaber, LMax indizeak ez ditu 45 dB(A) gaindituko.

a.2) Jarduera leiho eta ate itxiekin etxebizitzan barrualdera transmititutako LAeq,60 segundo zarataren indizeak 23:00etatik 7:00etara bitartean 30 dB(A) ez gainditzeko moldatuko da. Halaber, LMax indizeak ez ditu 35 dB(A) gaindituko.

b) Zama-lanen jarduerak eta kamioietan materialen garraioa zaratak sentiberatasun akustiko handiena duten zonetako giro-mailan hazkuntza garrantzitsurik ez izateko moduan egingo dira.

15. OBREN ZUZENDARITZA

1. Obrak San Markoko Mankomunitatearen zuzendaritza, zaintza eta kontrolpean egingo dira. Horretarako, obren zuzendari eskuduna izendatuko du. Mankomunitateak horretarako egokitzat jotzen dituen kanpoko laguntza teknikoak kontrata ditzake.

2. Obren zuzendaritza eskudunaren azalpenek ezingo dituzte proiektuaren edo administrazio-baldintzen orriaren klausulak aldatu, baina bai interpretatu eta argitu. Obren kontratistak derrigorrez bete beharko ditu.

3. Kontratistak une oro eta obran "Aginduen Liburua" izan beharko du zuzendaritza eskudunaren eskura. Nolanahi ere, indarreko legeriak xedatutakoarekin bat erabiliko da.

Obraren zuzendari eskudunak kontratistari ematen dizkion aginduak, argibideak eta jakinarazpenak idatziz egingo dira eta bere sinadurarekin baimenduko ditu. Argibideak ahozkoak direnean, eperik laburrenean idatziz berretsi beharko dira, aldeentzat lotesleak izateko.

4. Obren zuzendari eskudunak edozein unetan materialen eta obra-unitateen saiakuntzak, probak eta analisiak egiaztatzea eska dezake, bere iritziz beharrezkoak badira.

Era berean, esleipendunak Mankomunitatetik eta obraren zuzendaritza eskudunetik datozkion agindu guztiak bete beharko ditu, helburua obrak eta kokagunean egunero garatzen diren jardueren kudeaketa bateratzea bada.

16. OBRA-KONTRATUA ALDATZEA

1. Kontratua burutu ostean, kontratazio-organoak bakarrik interes publikoaren arrazoia dela-eta sar ditzake aldaketak, betiere behar berriei edo ustekabeko arrazoiei erantzuten badiete eta espedientearen behar bezala justifikatzen badira.

2. Gauzaten ari den bitartean zuzendaritza eskudunak ezingo du proiektuaren obra-unitateetan aldaketarik sartu alde aurretik administrazio kontratugileak baimendu gabe. Era berean, proiektuaren dokumentuak bat ez badatoz, onartutako proiektuan aldaketa sartzen duen erabakirik ezingo du hartu.

3. Kontratistak obra-unitateetan administrazio kontratugileak alde aurretik baimendu gabe aldaketak egiten baditu, nahiz eta horiek zuzendaritza eskudunaren argibidepean egin, Administrazioak ez du obligatorik izango. Gainera, kontratistak obra horiek berriz egin beharko ditu, ordainketa jasotzeko eskubiderik izan gabe, hori guztia administrazioak beren kontratuak betez bie diezazkiekeen erantzukizunak alde batera utzi gabe. Kontratua ebazteko aukera izango du ere bai.

4. SPKLTBk 234. artikuluan xedatutakoarekin bat, obren kontratuan egindako aldaketak kontratistak derrigorrez bete beharko ditu, Legeak 219. artikuluan zehaztutakoaren babesean, obra-unitateak gehitu, murriztu edo deuseztatzen badira edo fabrika-mota baten orde bestea erabiltzen bada eta kontratuan dagoen baten barruan badago. Obrak deuseztatu edo murriztuz gero, kontratistak kalte-ordaina erreklamatzeko ez du eskubiderik izango, SPKLTBk 23. artikuluan aurrez ikusitako alde batera utzi gabe.

Aldaketekin proiektuan ez dauden obra-unitateak sartzen badira edo horien ezaugarriak nabarmenki desberdinak badira, SPKLTBk 234. artikuluan agindutakoari erreparatuko zaio.

6. Zuzendaritza eskudunak proiektuaren aldaketa bat beharrezkotzat jotzen duenean, kontratazio-organoari espedientea hasteko baimena eskatuko dio eta premiaz izapidetuko da SPKLTBk 234. artikuluan aurrez ikusitako jarduerekin.

17. NEURKETAK, BALORAZIOA ETA KONTURA EGINDAKO ORDAINKETAK

1. Obren zuzendaritza eskudunak hileroko gauzatutako obra-unitateak neurtuko ditu.

Dimentsioak edo ezaugarriak ondoren ezkutuan geldituko diren obra eta obra-zatietarako, kontratistak zuzendaritzari nahikoa aurrerapenez ohartaraziko dio, neurketak egin eta datuak hartu ahal izateko. Ildo horri eutsiz, definitzen dituzten planoak altxatuko ditu. Adostasuna kontratistak edo ordezkariak sinatu beharko du.

Aldez aurretik ohartarazpenik ez badago (kontrakoa egiaztatzea kontratistari dagokio), gaiari buruz administrazioak hartutako erabakiak onartu beharko ditu.

2. Neurketa horietan oinarrituta, jatorrian baloratutako zerrenda idatziko du eta dagozkion prezio unitarioak aplikatuko ditu.

Zerrenda baloratua izapidetzearekin batera, obra-zuzendaritzak ale bat kontratistari bidaliko dio adostasuna eman edo eragozpenak jartzeko. Horrek egokitzat jotzen dituen alegazioak egin ahal izango ditu dokumentua jasotzen den unetik gehienez hamar eguneko epean.

Epe hori kontratistak alegaziorik formulatu gabe igarotzen bada, erlazio baloratuaren adostasuna emantzat joko da. Bestela, kontratistaren alegazio guztiak edo batzuk onartzen badira, hurrengo erlazio baloratua idazteko orduan edo, hala badagokio, azken ziurtagirian edo kontratuaren likidazioan kontuan hartuko dira.

3. Egindako lanen zenbatekoa hileroko kontratistari egiaztatuko zaio obren zuzendari eskudunak egindako ziurtagirien bitartez.

4. Ziurtagiria onartu ostean, kontratistak obraren likidazioaren kargura legeaz aurrez ikusitako epeetan ordaindua izateko eskubidea izango du (SPKLTBren 216. artikulua).

5. Aurrekontuan sartutako altxatutako partidak, oso-osorik ordaintzeko berariaz kalifikatutakoak salbu, edozein kontzeptu, titulu edo izen dutelarik, "justifikatzeke" izango dira eta proiektuaren aurrekontuko berezko obra-unitateen edo horietatik ondorioztatutako unitateen bidez ordainduko dira. Bakarrik azkeneko aukera izanez gero, prezio berriei buruzko aurreikuspena joko da, HABLAK 154.2. artikuluan xedatutakoarekin bat.

6. Justifikatzeke dauden altxatutako partidak ordaintzeko, eta jardueretan obra-unitateak aplikatzea bidezkoa ez denean, aldez aurretik obren zuzendaritza eskudunak baimendu eta ados azalduta, Administrazioak hirugarrenek fakturatzea erabaki dezake. Fakturatutako zenbateko likidoa kontratistak ordainduko du eta Administrazioak itzuliko dio, hurrengo hilabetean egindako obra-ziurtagirian sartuz. Zenbatekoa gastu orokorren kontzeptupean 100eko 13 aplikatuz gehituko da eta ez da esleipenaren hazkuntza edo beherapenaren araberakoa izango.

7. Kontratistak metatuak dauden materialengatik, instalazio eta ekipoengatik kontura ordainketak jasotzeko eskubidea izango du, HAKLAOK 155. artikulutik 157. artikulura xedatutako baldintzetan.

8. Kontratua legeztatu eta aseguru-etxeak orri honetako 12. eta 13. klausuletan aipatutako polizak sinatu direla egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu arte ezingo da ziurtagiririk egin eta, ondorioz, ordainketarik ere ez.

18. HARRERA, NEURKETA OROKORRA ETA OBRAREN AMAIERAKO ZIURTAGIRIA

1. Kontratututako obrak amaitzen direnean, indarreko legerian aurrez ikusitako moduan hartu eta likidatuko dira.

2. Obrak hartzeko, kontratistak obrek nahasitako zonak garbitu beharko ditu, seinaleztapen, enpresaren publizitate eta obra-hondarrik gabe utziz eta asaldatuak izanez gero, hasierako egoerara lehengoratuko dira.

3. Aldez aurretik kontratistak hamabost (15) laneguneko aurrerapenez idatziz jakinaraziko dio obra-zuzendaritzari kontratua amaitu edo gauzatzeko aurrez ikusitako data, harrera egin ahal izateko, HAKLAOK 163. artikuluan xedatutakoarekin bat.

4. Obra-zuzendariak hartzen denetik hilabeteko epean proiektuaren arabera egiaz gauzatutakoen neurketa egingo du.

Neurketaren emaitzak kontratistari jakinaraziko zaizkio, bost laneguneko epean adostasuna azal dezan edo egokitzen jotzen dituen eragozpenak adieraz ditzan.

5.- Hartzen den unetik bi hilabeteko epean, kontratazio-organoak gauzatutako obren amaierako ziurtagiria onartuko du eta kontratuaren likidazioaren kontura kontratistari ordainduko zaio.